

“GIB/HIESA ETA BESTELAKO GAIXOTASUN SEXUALEN PREBENTZIORAKO GIDA”

“GIB/HIESA eta bestelako gaixotasun sexualen prebentziorako gida” hau gazteen artean kontzientzia pizteko helburuarekin egin dago.

Horregaitik, eta kontzientzia hori pizteko, jokaeran eragina daukaten faktoreekin esku-hartu behar da; arriskuaren hautematea, eredu erromantikoak, kondoiaz duten ereduak, komunikatzeko gaitasunak, autoestimua, berdinen arteko harremanen eragina...

Gida hone lehen zatian “· agujas” filmaren fitxa teknikoa daukagu. Horrekin sexu transmisiozko gaixotasunez kontzientziatu nahi da; hala nola, *kandidiasis*, *gonorrea*, *ernaltze organoen herpesa*...

Gainera, sexu transmisiozko gaixotasunen gainerako azalpenak agertzen dira, beraien bitartez informatu eta gazteak sentsibilizatzeko.

Azkenik, talde dinamikak egiteko hariketa posible batzuk aurkezten ditu, gazteen artean gai hai modu dibertigarri eta entretenigarri batean egiteko.

ALAZNE MARDARAS

3 AGUJAS

FITXA TEKNIKOA:

Urtea: 2005

Gaia: Drama

Herrialdea: Canadá

Iraupena: 123 minutos

Izenburu originala: 3 Needles

Zuzendaritza: Thom Fitzgerald

Ekoizpena: Thom Fitzgerald / Bryan Hofbauer

Elkarrizketak: Thom Fitzgerald

Argazkiak: Tom Harting

Musika: Christophe Beck / Trevor Morris

Argumentua: HIRU KONTINENTE, HIRU ISTORIA, ESPERIENTZI AHAZTEZIN BAKARRA. Txinan, Jin Ping-k odola batzeko zerbitz bat jartzen du. Zoritxarrez, berak ere aurre egin beharko duen epidemia bat sortzen da.

Afrikar Hegoaldean, Clara, gazte nobiziar bat, nahiz eta bertako eta erlijioen siniskerak, bertako haur gaixoak zaintzen ditu.

Kanadan, Denny, aktore pornoa, gertakari batzuk emango dia bere eta bere amaren bizitza aldatuko direlarik.

GOGOAN IZATEKO:

- HIESAren birusa eta bere hedapena.
- Kutsatze erak.
- Aurre-hartzeko erak.
- Sexu transmizioko beste gaixotasun batzuk.
- Berdinen arteko hezkuntza.
- Sexualitatea.

TALDEENTZAKO DINAMIKAK

Aurrez ezagutzea prebentziorako erarik eraginkorreba da, gero eta gehiago jakin orduan eta aukera gehiago ditugu gure eskura. Oso garrantzitsua da danok jakitea zer den gaixotasun hau, nondik datorren, nola kutsatzen den eta nola babestu ahal garen.

Berdinen artean eta modu atsegingarri baten bidez HIESA eta bestelako gaixotasunen prebentzioa ulertzeko taldeentzako dinamikak prestatzea oso garrantzitsua da.

1.- REALITY SHOW-a

Helburuak:

- ✓ Jendartean daueden GIB/HIESA-ren inguruko, kondoiaren erabilera eta pertsona kutsatuei buruzko eztabaiden artean hausnartzea.
- ✓ Parte hartzaileen arteko harremana bultzatu-

Denbormalizazioa:

45 minutu.

Materiala:

Kartulinak eta errotulagailuak.

Garapena

Parte hartzaile guztiak 4 taldeetan banatuko ditugu. Telebistako eztabaida programa batean parte hartuko dutelakoan, talde bakoitzak HIESA/GIB-aren postura ezberdinak hartuko dituzte. Horrela, postura hori defenditu eta argudiatuko dute.

Postura posibleak:

- Kondoeien erabileraren aurkako taldea. Nolabait pertsona kutsatuenganako nolabaiteko bereizkeria erakutsiz.
- Informazio gabeko taldea.
- Kontsientziadun taldea.
- Informaziodun taldea baina “guri ez zaigu zuertatu”

Hasi baino lehen talde bakoitzak bere argudioak kartulina batean jarriko ditu, nolabaiteko laguntza emateko.

Talde bakoitzak bozeramaile bat izango du.

Balorazioa

Taldekideekin baloratuko da postura bakoitza argudiatzean nola sentitu diren eta beraien iritzi pertsonalarekin bat datorren (inor derrigortu gabe bere postura ematera).

2.- JAIA

Helburuak:

- Babes gabeko harreman sexual bat izatearen eraginen inguruko kontzientzia piztea.
- Parte hartzaileen autoestima igotzea.
- Parte hartzaileen harremana bultzatzea.

Denboralizazioa:

45 minutu.

Materiala:

Folioak, zela, boligrafoak, arbela eta klariona.

Garapena:

Parte hartzaile bakoitzak papertxo batean jarriko ditu besteen aurrean erakargarria egiten duen bere ezaugarri bat. Papera zeloarekin bularrean itsatsiko da besteek ikus dezaten.

Gainera, parte hartzaile bakoitzak bere izena hiru papertxoetan jarriko ditu.

Bitartekariak jai batean daudela adieraziko diote parte hartzaileei. Aulkietatik jeiki eta besteen ezaugarriak irakurri behar dituzte (musikaren laguntzaz erakargarriagoa egiten da).

Pertsona batek besteren baten ezaugarriak gustatzen zaizkionean bere izena duten papertxoak elkartrukatuko dute. Horrela, elkartrukaketaren ordena adieraziko da zenbakiz (lehengo, bigarren edo hirugarren elkartrukaketa).

Jokua bukatzean pertsona batek bat, bi edo hiru papertxoak elkartruka ditzakez.

Balorazioa

Bitartekariak azalduko du nola papertxoaren elkartrukaketa bakoitza harreman sexual bat izan den, eta pertsona bi (hautatuak) kutsatuak izan diren.

Arbelan kutsatuen pertsonen izenak idatzi eta egondako igorpenak jarriko dira.

Ostean, bi pertsonak kondoa erabili dutela adieraziko da eta igorpen maila nila jaitsi den konturatuko dira parte hartzaileak. Horrela, kondoiaren erabileraren garrantziaz eztabaidatuz.

3.- Kontu pertsonalak:

Helburuak:

- ☒ Kondoa ez erabiltzearen aurki daitezken arriskuak analizatu.
- ◇ Alternatiba ezberdinak eskaini harreman sexualetan kondoa erabiltzeko.
- ◇ Parte hartzaileen arteko komunikazioa sustatu.

◇ Harreman sexualetan kondoia erabiltzearen negoziazioa sustatu.

Denboralizazioa:

60 minutu.

Materiala:

Egoeren txartelak, folioak eta boligrafoak.

Garapena:

Parte hartzaileak lau taldetan banatuko dira.

Talde bakoitzak gidoi bat jasoko du GIB/HIESAren aurre hartzeari buruzkoa.

Egoera bat edo beste bat tokatua, eskutitz bat idatzi beharko dute aldizkari batera, gazteoi dituzten dudak argitzeko atalera.

Egoera irakurri eta pertsona horren azalean jarri beharko dira momentu batean. Ze dura edo zalantza izango zituzten pentsatuz eta eskutiz horretan idatziz.

10-15 minutu pasata, moderatzaileak eskutitz guztiak batu eta beste talde batzuekoekin elkartrukatuko ditu, irrati programa edo aldizkariko erredakzioan lan egingo balute bezala erantzuna idaz ditzaten-

Ostean talde bakoitzak bere erantzunak irakurriko ditu, denon artean komentatuz.

Aurkeztu daitezkeen egoerak:

“Anak 17 urte ditu eta hainbat penetraziozko harreman sexual izan ditu pertsona ezberdinekin. Lagunek babesten ote den galdetzen diotenean ezezkoa ematen du. Lagun batzuk ondo dagoela eta beste batzuk gaizki dagoela erantzuten diote. Ez daki zer egin eta horregaitik idazten du eskutitza.”

“Paz-ek asko maite duen mutilaguna dauka bi hilabetetik hona. Hurrengo hitzorduan harreman sexualak izango dituztela uste du. Kondoia erostea erabaki zuen baina ez daki bere mutil lagunak erabiltzen dituen edo ez. Paz-ek uste du mutil lagunarentzako kondoia prostitutekin bakarrik erabiltzen direla eta zer egiten duen berak boltsoian kondoi kaxa batekin galdetuko diola. Ez daki zer egin mutil laguna konbentzitzeko”.

BAI

EZ

EZ DAKIT

10.- Etxeko abereek eta euliek, birusa transmititu dezakete?

BAI

EZ

EZ DAKIT

ERANTZUNAK

1.- SEROPOSITIBOA IZATEAK EZ DU ESAN NAHI HIESA DAUKAZUNIK. Birusa linpositoetatik zehar sartzean denbora baterako geldo gelditzen da. Momentu honetan ez dago birusaren presentziarik organismoan. Itxuraz, pertsona osasuntsu bat izango da, baina nahiz eta birusa ez izan, berak transmititu dezake. Horrela ba, HIESA transmititu dezake.

2.- BIRUSA EZ DA LISTUAREN BITARTEZ TRANSMITITZEN. Birusa odolean, esperma hazietan eta maginako jarioetan aurkitzen da, eta maila txikiago batean amaren esnean.

3.- KONDOIAK SEGURUAK DIRA. Ikerketa asko egin ondoren sarketa bidezko harreman sexualak egiteko kondoia erabiltzea seguruena diote. Hala ere, gaizki erabiltzeak edota iraungitze datatik kanpo erabiltzeak egiten du kondoia aputzeak. Oso garrantzitsua da kontu hauek zaintzea.

4.- BASEKTOMIA EGINDAKO GIZON BATEK HIESA TRANSMITITU DEZAKE. Basektomiak espermatozoideen ibilbidea bakarrik oztopatzen du, ez prostatakoko likidoak; hor baita HIESAren birusa.

5.- KUTSATZE ERARIK MAIZENA EUROPAN EZ DA HOMOSEXUALEN ARTEKOA. Nahiz eta Europako herrialde ezberdinetan ezberdina da, Espainiar estatuan kutsatze erarik maizena xiringen arteko elkartrukaketen ondoriozkoa da.

6.- HIESAK EZ DU HOMOSEXUALAN ETA PROSTITUTETAN BAKARRIK ERAGITEN. HIESAren kutsatzeak ez du zerikusirik gustu sexual edo egoera zibilean. Kutsatzea arriskuko harreman guztietan eman daiteke, hau da, kondoirik erabiltzen ez den harreman sexual denetan.

7.- NAHIZ ETA PROBAN NEGATIBOA IRTEN, KUTSATU NAITE. Probak ez du kutsagaitz egiten pertsona. Harreman sexualetan arriskuko jokaerak egiten du kutsatze maila handiagotzea, beraz garrantzitsua da sarketarako kondoia erabiltzea eta xiringak elkartrukatzea sahiestea.

8.- HARREMANA IZAN ETA HURRENGO EGUNEKO PROBAREN EMAITZA EZ DA ZIHURRA. Itxaroteko epe minimoa hiru hilabetekoa da. Epe horretan odola, esperma edota organoak ez dira eman behar.

9.- HIESA EZ DA HERENTZIAZKO ERITASUN BAT.

10.- EULIEK ETA ETXEKO ABEREK EZ DUTE BIRUSA TRANSMITITZEN. Euliek betse gaixotasun batzuk transmititu ditzakete, hala nola, paludismo... Katu, txakur, txori...ere ez dute birusa transmititzen.